

# GORPUTZ MULTIKULTURALAK

## ODOLAREN TENPERATURA NORTASUNEN ARDATZ

Kolonbian jaio eta azken hamar urteak Lezon (Gipuzkoa) igarotakoa da Sandra González. Han eta hemen gorputzarekiko ditugun pertzepzio desberdinak kontatu dizkigu bere sententzioetatik. Erlijioak, kulturak eta klimak, bereziki, interpretazio anitz izatera bultzatu gaituztelakoan. “Finean, denak gara berdinak baina ezin dugu ukatu jendarteak eragina duela gure gorputzengan eta, hortaz, mundua ulertzeko eran”, dio.



**Ainhoa Mariezkurrena Etxabe**  
@xorginkeiak

“Latinoamerikarrak odol berokoak gara eta Euskal Herriko klimak zuen gorputzak hoztu ditu”. Hala hasi du elkarrizketa Sandrak eskuak altxa eta dantzan hasi den bitartean. Hotza erantzuleetako bat dela sinetsita euskaldunek gorputzekiko dugun ukazioa aipatu du behin eta berriro. Dantza, sexualitatea, harremanak eta abar gorputzetik deskonektatuta bizi ditugula gaineratu du eta hori ez dela uzi pertsonala, kulturala baizik.

Dantza eta musika hizpide, erritmo latinoak aipatu dizkigu Gonzalezek. Euskal Herriko tabernetan gero eta gehiago entzuten dira eta ezaugarri positiboak azaleratu nahi izan dizkigu: “Musika latinoak ikuspegia aldarazten dio pertsonari; dantzan hasteko gogoia piztu eta protagonismoa emanez gorputzari”. Arrazoi beragatik, ordea, begirada eta komentario negatiboak jaso dituela kontatu digu. –“Egiten ari zarena edukazio txarrekoa da”, esan zioten behin.– “Ez dut inoren begirada erakartzeko egiten, aske sentiarazten nauelako baizik.



Dantza probokatiboa gerta liteke, baina sentitzen dut; nahi dudalako egiten dut hemen eta orain”, erantzun zion. Horregatik ez dio inoiz dantzatzeari utzi.

Kultura, baina, ez da soilik musika eta dantza. Ezaugarri batzuk komunean dituen jende talde bat bezala ulertzen du Sandrak. Emakume kolonbiar, ausart, aske eta espiritual gisa deskribatzen du bere burua. Ordea, ez erlijioari kasu eginez, gorputzari baizik: “Erlijioak gorputzak inbaditu eta beldurrak besterik ez dizkigu transmititu”. Sexualitatearen tabua, esaterako: “Euskal Herrian sexua ez da lehentasuna eta niretzat normala eta beharrezkoa da. Gertutasuna eta afinitatea sortzen ditu eta garen bezalakoak azaltzeko aukera eman”, dio harrirituta.

Bizimoduak duen eraginari heldu dio Gonzalezek. Bizi baldintzek egoera bazuetan kokatu eta horietara moldatzen ditu gorputzak: “Hemen, gatza falta badugu, ziurrenik erostera joango gara. Eta han, bizilagunari eskatuko diogu. Bizitza elkar trukatzeko dugu. Elkarrekintzan

**“Musika latinoak ikuspegia aldarazten digu, dantzan hasteko gogoia piztu eta protagonismoa emanez gorputzari”**

dago gakoa eta kulturen artean ere horrek aberasten gaitu: bestearen onena hartu eta nirearen onena emateak”.

Eta, orduan, nola ulertzen dugu gorputza? galdetu diogu. “Jendarte guztietan, sentitzen dugunaren harira ez bizitzeko hazten gaituzte. Burua edukiz eta mezuz bete eta izatera behartu, kultura, erlijioa eta hezkuntza bezalako tresnak erabilia. Baina gorputza bakarrik doa, entzun besterik ez dugu egiten behar”. ■